



ESTADÍSTIKA  
ORGANO  
ORGANO  
ESTADÍSTICO

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
*Zerbitzu Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
*Dirección de Servicios*

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

## ETXEBIZITZEN BEHARREI ETA ESKAERARI BURUZKO INKESTA - 2015

*Laburpen-txostena.*

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren  
Estatistika Organo Berezia*



## 1.-SARRERA

Jarraian aurkeztuko den txostena Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organoak egindako Etxebizitzen Beharrei eta Eskaerari buruzko 2015eko Inkestan (EBEI) bildutako datuak oinarri hartuta egin da.

Dokumentu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza beharren adierazle kuantitatibo eta kualitatibo nagusiak jorratzen dira, beren erabileraren arabera. Batetik, lehen etxebizitza eskuratzeko banako beharrak aztertzen dira eta, bestetik, etxebizitza aldatzeko edo birgaitzeko familia beharrak. Bi kasuetan, beharrak etxebizitza nagusiari dagozkio bakarrik.

Dokumentuan azken urteotako adierazle eta aldagai nagusien portaeraren ikuspegi dinamiko bat eskaintzea helburu duten eboluzio-azterketa batzuk biltzen dira. Helburua EAeko biztanleriaren etxebizitza-beharren eboluzioa adieraztea da.

Azterketaren emaitza nagusiak, batetik lehen etxebizitza eskuratzeko beharra kuantifikatzeari dagokionez eta, bestetik, etxebizitza nagusia birgaitzeari edo aldatzeari dagokionez, laburbilduta ageri dira ondorengo taulan. Datuak lurralde historikoaren arabera antolatuta daude.

### 1. taula. Etxebizitza eskuratzeko, aldatzeko eta birgaitzeko beharra, lurralde historikoaren arabera. 2015

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETXEBIZITZA BEHAR ETA ESKAERARI BURUZKO INKESTA		2015	2013. urtearekiko aldakuntza	
			GUZTIRA	%
Euskal Autonomia Erkidegoa	Sarbidea <sup>1</sup>	64.290	4.972	8,4
	Aldatzea	53.132	-8.489	-13,8
	Birgaikuntza	58.017	-32.122	-35,6
	Etxeak	863.530	-8.970	-1,0
Araba	Sarbidea <sup>1</sup>	8.362	1.696	25,4
	Aldatzea	9.307	489	5,5
	Birgaikuntza	6.684	-11.448	-63,1
	Etxeak	131.889	-2.410	-1,8
Bizkaia	Sarbidea <sup>1</sup>	34.949	5.004	16,7
	Aldatzea	26.042	-15.241	-36,9
	Birgaikuntza	27.612	-16.886	-37,9
	Etxeak	450.493	-6.908	-1,5
Gipuzkoa	Sarbidea <sup>1</sup>	20.979	-1.728	-7,6
	Aldatzea	17.784	6.263	54,4
	Birgaikuntza	23.720	-3.788	-13,8
	Etxeak	281.148	348	0,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzen beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

<sup>1</sup> Soilik diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsonak hartuko dira kontuan.



## 2.-LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA

**Diru-sarrera propioak izanik lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen kopurua areagotu egin da 2015ean, baina soilik bostetik batek uste du nahikoa diru-sarrera dituela sarbide beharrari aurre egin ahal izateko**

2015ean lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak 104.176 pertsonari eragin zien, emantzipazio beharra adierazi baina inkesta egin zen unean diru-sarrera edo errenta propioak ez daukaten pertsonak aintzat hartzen badira (31.340 pertsona). Aipatutako 104.176 pertsonako kolektiboa guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko 281.082 pertsonen % 37,1 da. Proporzioak % 14,3 egin du behera 18 eta 44 urte bitarteko EAEko biztanleria osoa kontuan hartzen bada.

Guraso edo tutoreekin bizi eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra adierazi duten 18 eta 44 urte arteko 104.176 pertsonetatik 72.836k etxebizitza eskuratzeko prozesu hori finantzatzeko diru-sarrera edo errenta propioak dituzte. 2013. urtearekiko, zifra hori % 11,5 areagotu da, orduan 65.346 pertsonak adierazten baitzuten behar hori. Termino erlatiboetan, egoera horretan dauden pertsonen gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 281.082 pertsonen % 25,9 osatzen dute.

Proporzio hori % 7,8koa da 25 urtetik beherako pertsonen kasuan, baina % 40,4ra igotzen da 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen kasuan, eta % 30,9ko mailan mantentzen da 35 eta 44 urte bitartekoetan.

### 2. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharren kuantifikazioa, adin eta sexu taldearen arabera, EAE. 2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak pertsonen guztizkoaren gainean eta beharra duten pertsonen gainean)

	Eskuratzeko beharra duten pertsonak		18 eta 44 urte bitarteko biztanleak		Gurasoekin bizi dira		Diru-sarrera edo errenta propioak izanik beharra duten pertsonak		Horri aurre egiteko nahikoa diru-sarrera edo errenta propioak izanik beharra duten pertsonak	
	Kp.	bol. %	Kp.	beharraren % / biztanleria	Kp.	beharraren % / biztanleria	Kp.	beharraren % / beharra guztira	Kp.	beharraren % / beharra guztira
<b>Orotara</b>	<b>104.176</b>	<b>100,0</b>	<b>728.754</b>	<b>14,3</b>	<b>281.082</b>	<b>37,1</b>	<b>72.836</b>	<b>69,9</b>	<b>15.645</b>	<b>15,0</b>
<b>14 eta 24 bitartean</b>	21.809	20,9	124.434	17,5	111.390	19,6	8.692	39,9	1.400	6,4
<b>25 eta 34 bitartean</b>	63.877	61,3	247.434	25,8	122.894	52,0	49.687	77,8	9.788	15,3
<b>35 eta 44 bitartean</b>	18.489	17,7	356.886	5,2	46.797	39,5	14.456	78,2	4.456	24,1
<b>Emakumea</b>	44.493	42,7	358.010	12,4	121.148	36,7	30.812	69,3	5.578	12,5
<b>Gizona</b>	59.683	57,3	370.744	16,1	159.933	37,3	42.024	70,4	10.067	16,9

*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015*



### 3. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko sarbide eskaera eta beharraren kuantifikazioa adin tarte eta sexu bakoitzeko, eskuragarri dituzten errenta propio eta diru-sarreraren arabera, EAE. 2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak pertsonen guztizkoaren gainean eta beharra duten pertsonen gainean)

	Diru-sarrera edo errenta propioekin												Diru-sarrerarik ez				Guztira, beharrianarekin			
	Nahikoa diru-sarrera				Diru sarrera gutxiegi edo ezegonkorak				Guztira diru-sarrekin											
	Kp.	% v.	%h. (1)	%h. (2)	Kp.	% v.	%h. (1)	%h. (2)	Kop.	% v.	%h. (1)	%h. (2)	Kp.	% v.	%h. (1)	%h. (2)	Kp.	% v.	%h. (1)	%h. (2)
<b>Guztira</b>	<b>15.645</b>	<b>100</b>	<b>2,1</b>	<b>5,6</b>	<b>57.191</b>	<b>100</b>	<b>7,8</b>	<b>20,3</b>	<b>72.836</b>	<b>100</b>	<b>10,0</b>	<b>25,9</b>	<b>31.340</b>	<b>100</b>	<b>4,3</b>	<b>11,1</b>	<b>104.176</b>	<b>100</b>	<b>14,3</b>	<b>37,1</b>
<b>14 eta 24 bitartean</b>	1.400	8,9	1,1	1,3	7.292	12,8	5,9	6,5	8.692	11,9	7,0	7,8	13.117	41,9	10,5	11,8	21.809	20,9	17,5	19,6
<b>25 eta 34 bitartean</b>	9.788	62,6	4,0	8,0	39.899	69,8	16,1	32,5	49.687	68,2	20,1	40,4	14.190	45,3	5,7	11,5	63.877	61,3	25,8	52,0
<b>35 eta 44 bitartean</b>	4.456	28,5	1,2	9,5	10.000	17,5	2,8	21,4	14.456	19,8	4,1	30,9	4.033	12,9	1,1	8,6	18.489	17,7	5,2	39,5
<b>Emakumea</b>	5.578	35,7	1,6	4,6	25.234	44,1	7,0	20,8	30.812	42,3	8,6	25,4	13.681	43,7	3,8	11,3	44.493	42,7	12,4	36,7
<b>Gizona</b>	10.067	64,3	2,7	6,3	31.957	55,9	8,6	20,0	42.024	57,7	11,3	26,3	17.659	56,3	4,8	11,0	59.683	57,3	16,1	37,3

(1) Beharra duten pertsonen ehunekoa, 18 eta 44 urte bitarteko pertsona guztiak dagokienez

(2) Beharra duten pertsonen ehunekoa, guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko pertsona guztiak dagokienez.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

### 4. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko eskaera eta beharraren kuantifikazioa diru-sarrera edo errenta propioak dituzten pertsonen adin tarte eta sexuari dagokienez, EAE. 2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak pertsonen guztizkoaren gainean eta beharra duten pertsonen gainean)

	Diru-sarrera edo errenta propioak izanik beharra duten pertsonak		18 eta 44 urte bitarteko biztanleak		Gurasoekin bizi dira		Berezko diru-sarrerak edo errentak ditu	
	Kp.	bol. %	Kp.	beharraren % / biztanleria	Kp.	beharraren % / biztanleria	Kp.	beharraren % / biztanleria
<b>Orotara</b>	<b>72.836</b>	<b>100,0</b>	<b>728.754</b>	<b>10,0</b>	<b>281.082</b>	<b>25,9</b>	<b>155.077</b>	<b>47,0</b>
<b>14 eta 24 bitartean</b>	8.692	11,9	124.434	7,0	111.390	7,8	26.598	32,7
<b>25 eta 34 bitartean</b>	49.687	68,2	247.434	20,1	122.894	40,4	91.364	54,4
<b>35 eta 44 bitartean</b>	14.456	19,8	356.886	4,1	46.797	30,9	37.115	38,9
<b>Emakumea</b>	30.812	42,3	358.010	8,6	121.148	25,4	63.606	48,4
<b>Gizona</b>	42.024	57,7	370.744	11,3	159.933	26,3	91.472	45,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

Guraso edo tutoreekin bizi diren eta diru-sarrera edo errenta propioak dituzten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagokienez, 155.077 guztira, beharra eta diru-sarrerak dituzten 72.836 pertsonetatik guztiaren % 47,0 da. Deskribatutako egoeran diru-sarrerak dituzten 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 54,4 inguruk lehen etxebizitza eskuratzeko beharra aipatzen duen arren, proportzioa % 38,9ra jaisten da 35 eta 44 urte bitarteko artean, eta % 32,7ra 18 eta 24 urte bitarteko artean.


Generoaren faktoreari dagokionez, diru-sarrerak eta errenta propioak dituzten herritarren artean 18 eta 44 urte arteko emakumeen artean emantzipatzeko premia handiagoa ageri da (% 48,4koa; gizonezkoen artean zifra % 45,9koa da). Hala ere, balio absolutuak aintzat hartuz, emantzipatzeko premia duten emakumeen kopurua txikiagoa da gizonezkoena baino; izan ere, diru-sarrerak dituzten eta premia duten pertsonen % 42,3 hartzen dute



(30.812 pertsona); gizonezkoek gainerako % 57,7a hartzen dute (42.024 pertsona). Antzeko egoera gertatzen da emantzipatzeko premia duten pertsona guztiak aintzat hartuz gero, diru-sarrerak izan zein ez (% 42,7, eta besteen kasuan % 57,3). Hala gertatzen da adin tarte horretan emantzipatutako emakumeen ehunekoak altuagoa delako (% 66,2, eta gizonen kasuan, berriz, % 56,9).

Bereziki nabarmendu beharreko alderdi bat da, 2013. urteari dagokionez 18 eta 44 urte arteko herritarren artean premia areagotu arren, benetan horri aurre egiteko nahikoa diru-sarrera duela uste duen populazio zatia soilik premia duten populazio osoaren % 15 baino ez duela hartzen. Izan ere, talde nagusiak diru-sarrerak ditu, baina prozesu horri aurre egiteko txikiegiak direla edota ezegonkorak direla uste du (% 54,9); gainerako % 30,1ak ez du inolako diru-sarrerarik. Diru-sarrera prekarioak dituzten pertsonen taldearen barruan, diru-sarrera txikiegi eta ezegonkorak dituzten pertsonak nabarmentzen dira (% 25,8), eta ondoren dator diru-sarrera egonkorak izan arren diru-sarrera txikiegiak dituzten taldea (% 21,2). Gainerako % 7,9ak baditu nahikoa diru-sarrera, baina aldi berean ezegonkorak dira.

### 1. grafikoa. Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko pertsonen diru-sarrera maila, lehenengo etxebizitzara sarbidea behar dutenak, adin tartearen arabera. 2015



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

Adin tartea aztertuz gero, deigarria da 18 eta 24 urte arteko taldean premia duten pertsona gehienek ez dutela inolako diru-sarrerarik (% 60,1); gainerako adin tartean proportzio hori % 22 ingurukoa da (25 eta 34 urte arteko taldean % 22,2, eta 35 eta 44 urte arteko taldean % 21,8). Aitzitik, adinak gora egiten duen neurrian, nahikoa diru-sarrera dituzten pertsonen ehunekoak ere gora egiten du. Egoera honek 18 eta 24 urte arteko taldearen % 6,4 hartzen du, 25 eta 34 urte arteko taldearen % 15,3 eta 34 urtetik gorako taldearen % 24,1. Antzeko egoera gertatzen da diru-sarrera egonkorak baina txikiegiak dituzten




pertsonen kasuan; gazteenen kasuan % 7,3koa da, tarteko adinekoen taldean % 24,8 eta nagusien kasuan % 25,2koa. Diru-sarreraren tipologia hori da hedatuena 35 eta 44 urte artekoen artean (% 25,2); 25 eta 34 urte artekoen taldean, berriz, diru-sarrera txikiegi eta ezegonkorrak dituztenen taldea da nagusi (% 28,3; ondoren, 18 eta 24 urtekoen artean % 22,9 eta 35 eta 44 urte artekoen artean % 20,4).

Zehaztu behar da, hala ere, 35 eta 44 urte arteko pertsonen artean, populazioaren gehiengoa dagoeneko emantzipatuta dagoela. Gurasoekin bizi diren 46.797 pertsonen adin tarte horretako herritarren % 13,1 baino ez dute hartzen; zifra horrek bost puntu baino gehiagotan egin du gora 2013. urtearekin alderatuta (% 7,6). 25 eta 34 urte arteko herritarren artean, ostera, proportzioa % 49,6koa da (2013ko % 49,8koaren antzekoa), eta herritar gazteagoen artean (18-24 urte artean) % 89,5era iritsi da, 2013ko zifra baino puntu portzental bat gehiago (% 88,3).

Orotara, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren pertsonen taldearen barruan deigarria da 2015ean diru-sarrerarik ez daukaten pertsonen taldea, guztiaren % 42,6; horien barruan lautik batek esan du lehenengo etxebizitzara sarbidea behar duela (% 11,1). Aztertutako populazio taldearen % 25,9k adierazi du lehenengo etxebizitzarako sarbide premia duela eta badituela horretarako diru-sarrerak; hala ere, soilik bostetik batek uste du horri aurre egiteko nahikoa diru-sarrera duela (% 5,6), gainerako % 20,3ak ez du nahikoa diru-sarrera edota emantzipazioa oztokatzen dituen diru-sarrera ezegonkorrak ditu. Zailtasunak dituen talde horrez gain, % 6,1ek emantzipazioa planteatu ere ez du egiten, nahikoa diru-sarrerarik ez duelako edo diru-sarrera ezegonkorrak dituelako; gainerako % 11,8k adierazi du diru-sarrerak izan arren ez duela emantzipatzeko premiarik. Horrez gain, nabarmendu behar da gurasoekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko pertsonen % 7,8k etxebizitza bat duela, baina nahiago dute gurasoen etxean bizi. Gainerako % 5,7a aipatu gabeko beste egoera batzuetan bizi da.

## 2. grafikoa. Guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko biztanleak, etxebizitza beharrezko duten egoeraren arabera. 2015



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015



Bilakaerari dagokionez, 2013 eta 2015 artean 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen populazioak % 2,7 egin zuen behera; 2013an 749.081 pertsona ziren, eta 2015ean, berriz, 728.754. Bi urteko aldi berean, gurasoekin eta tutoreekin bizi diren pertsonen artean, ostera, % 5,2ko igoera antzeman da (267.256 pertsonatik 281.082 pertsonara). Talde horrek 18 eta 44 urte arteko pertsona guztien % 35,7 ordezkatzan zuen 2013an, eta % 38,6ra igaro da. Aztertutako adin taldean emantzipatutako pertsonen bolumena, aldiz, murriztu egin da, 481.825 pertsonatik 447.672 pertsonara.

Dinamika hori diru-sarreraren bat jasotzeari lotuta etxebizitza premia egoerek gora egiteari dagokio. Hala, diru-sarrerak izan eta premia egoeran dauden pertsonen bolumenak % 11,5 egin du gora 2013 eta 2015 artean; erreferentziako aldian 65.346 pertsonatik 72.836 pertsonara igaro da kopurua. 18 eta 44 urte arteko pertsonen artean, lehenengo etxebizitzara sarbidea behar duten eta diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsonen ehunekoak % 24,5 izatetik (2013) % 25,9 izatera pasatu da (2015).

Bestalde, % 15,1 egin du behera diru-sarrerarik ez daukaten pertsonen bolumena, eta 2013an 141.120 pertsona izatetik 2015ean 119.782 pertsonara igaro da. Beherakada nagusia emantzipazioa planteatzen ez duten pertsonen dagokie, nahikoa diru-sarrerarik ez dutelako edo diru-sarrera ezegonkorrak dituztelako (-10.133 kasu, -% 37,1 termino erlatiboetan). Aurkako ildoan, berezko etxebizitza izanagatik ere familiarekin bizi diren pertsonen kolektiboa nabarmen handitu da 2015ean. Hala, 2011n jasotako zifren parekoak izan dira 2015ekoak. 2015ean egoera horretan zeuden 21.970 pertsonak (% 7,8) 2013. urteko 9.206 pertsonen kopuruaren bikoitza baino gehiago da (% 3,4), eta 2011. urteko 21.934 pertsonen kopurutik oso hurbil dago (% 7,7).

## 5. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrekiko egoera, EAE. 2010-2015


(Guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen guztizkoaren gaineko ehunekoak eta pertsona kopurua)

	2010		2011		2013		2015		Aldaketa 2013-2015	
	Kop.	%	Kop.	%	kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>18-44 urte arteko pertsonak guztira</b>	<b>775.705</b>	<b>100,0</b>	<b>776.012</b>	<b>100,0</b>	<b>749.081</b>	<b>100,0</b>	<b>728.754</b>	<b>100,0</b>	<b>-20.327</b>	<b>-2,7</b>
Pertsona emantzipatuak:	472.972	61,0	492.827	63,5	481.825	64,3	447.672	61,4	-34.153	-7,1
Emantzipatu gabeko pertsonak	302.733	39,0	283.185	36,5	267.256	35,7	281.082	38,6	13.826	5,2
<b>Oinarria: Emantzipatu gabeko pertsonak</b>										
<b>Eskuratzeko beharra duten pertsonak</b>	<b>108.131</b>	<b>35,7</b>	<b>88.128</b>	<b>31,1</b>	<b>65.346</b>	<b>24,5</b>	<b>72.836</b>	<b>25,9</b>	<b>7.490</b>	<b>11,5</b>
. Nahikoa diru-sarrera	-	-	-	-	-	-	15.645	5,6	-	-
. Diru sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak	-	-	-	-	-	-	57.191	20,3	-	-
<b>Diru-sarrerarik gabeko pertsonak</b>	<b>136.386</b>	<b>45,1</b>	<b>147.881</b>	<b>52,2</b>	<b>141.120</b>	<b>52,8</b>	<b>119.782</b>	<b>42,6</b>	<b>-21.338</b>	<b>-15,1</b>
. Sarbide premia duten pertsonak	-	-	-	-	-	-	31.340	11,1	-	-
. Sarbide premiarik ez duten pertsonak	-	-	-	-	-	-	88.442	31,5	-	-
Ez du emantzipatzea planteatu. Diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak	9.355	3,1	14.446	5,1	27.287	10,2	17.154	6,1	-10.133	-37,1
Jadanik etxebizitza du	23.667	7,8	21.934	7,7	9.206	3,4	21.970	7,8	12.764	138,6
Beharrik ez Diru-sarrera batzuk	22.833	7,5	7.815	2,8	14.100	5,3	33.243	11,8	19.143	135,8
Bestelako egoerak	2.361	0,8	2.981	1,1	10.197	3,8	16.097	5,7	5.900	57,9

*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015*



### 3. grafikoa. Guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko biztanleak, etxebizitzaren beharrekiko duten egoeraren arabera. EAE 2010-2015



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

**Diru-sarrerak edo errenta propioak izanik lehenengo etxebizitzara sarbidea behar duten 72.836 pertsonen eskaera guztira 64.290 etxebizitzaren parekoa da, 2013an baino % 6,8 gehiago.**

Etxebizitzara sarbide modua aztertuz, banaka edo binaka, 18 eta 44 urte arteko pertsonen komunitatean lehenengo etxebizitzarako sarbiderako behar diren etxebizitzaren kopurua aztertu du EBEIk. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonak aztertuz gero, zifra hori 2015ean 64.290 pertsonen kopurura iritsi zen EAEn, 2013ko 59.318 etxebizitzaren kopurua baino % 8,4 gehiago. Existitzen diren etxebizitza nagusi guztiei dagokienez, lehenengo etxebizitzako premiak egin du gora 2013ko % 6,8 zifratik 2015eko % 7,4ra. 2005-2015 aldiko ehuneko baxuetako bat da; izan ere, 2013ko % 6,8 besterik ez du gainditzen, eta 2005 eta 2011 artean erregistratutako % 9ko mailaren pareko edo hori baino gehiagoko zifretatik urrun dago.

Lehen etxebizitzaren behar horren beherakada Bizkaian eta Araban izandako eboluzioari lotuta dago. Bizkaian, 18-44 urte arteko biztanleek 34.949 etxebizitza behar zituzten 2015ean, 2013an baino 5.004 gehiago (% 36ko gorakada, alegia). Lurrean, lehen etxebizitzaren eskaera etxebizitza nagusien guztizkoaren % 7,8koa da; 2005-2015 aldian zifra hori soilik 2013an erregistratutako % 6,5ko minimoa baino altuagoa da.

Diru-sarrera edo errenta propioak zituzten 18 eta 44 urte arteko Arabako biztanleek lehen etxebizitza gehiago eskatzen zituzten 2013an baino; hala, 6.666 etxebizitza behar zituzten 2013an baina 8.362, berriz, 2015ean, % 25,4ko igoera (1.696 etxebizitza gehiago). Kasu horretan, lehen etxebizitza eskuratzeko eskatzen direnak lurraldeko lehen etxebizitzaren






guztizkoaren % 6,3 dira. 2005 eta 2015 artean, zifra horrek 2005 eta 2013 artean erregistratutako minimoa baino ez zuen gainditu, % 5,0koa 2013an, nahiz eta 2011n jasotako % 6,6ra ere hurbiltzen den. Adierazlea, nolana ere, 2008-2009 edizioetako % 9,2-9,3 kopurutik urrun dago.

Arabian eta Bizkaian ez bezala, Gipuzkoako 18 eta 44 urte bitarteko biztanleen artean lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak behera egin du. Behar hori 22.707 etxebizitzakoa izatetik 20.979 etxebizitzakoa izatera pasa da 2013 eta 2015 artean, alegia, % 7,6ko beherakada egon da. Lurralde horretan, lehen aldiz eskuratzeko beharrezko etxebizitzak dauden etxebizitzen % 7,5 dira, alegia, beherakada 2013ko % 8,1ari dagokionez eta 2011ko % 7,8ri dagokionez. 2015ean jasotako zifra (% 7,5), hala, 2005-2015 aldiko minimoa da.

#### 4. grafikoa. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra, urtearen eta lurralde historikoaren arabera. 18-44 urte arteko pertsonak. 2005-2015



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzen beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015



## 6. taula. Lehenengo etxebizitzaren sarbide beharraren kuantifikazioa lurralde historikoen arabera (diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonak) EAE 2005-2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak, etxebizitzaren guztizkoaren gainean)

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kp.	etxe guztien %	Kp.	etxe guztien %	Kp.	etxe guztien %	Kp.	etxe guztien %
2005	90.815	11,7	13.217	12,1	49.348	11,8	28.290	11,4
2006	92.788	11,8	13.156	11,8	48.613	11,5	31.019	12,3
2007	82.891	10,4	12.424	10,9	46.299	10,8	24.167	9,4
2008	74.461	9,0	10.992	9,2	39.052	8,8	24.417	9,2
2009	110.677	13,2	11.476	9,3	66.418	14,8	32.783	12,2
2010	97.800	11,7	15.246	12,3	54.157	12,1	28.397	10,6
2011	76.360	9,0	8.306	6,6	46.808	10,4	21.246	7,8
2013	59.318	6,8	6.666	5,0	29.945	6,5	22.707	8,1
<b>2015</b>	<b>64.290</b>	<b>7,4</b>	<b>8.362</b>	<b>6,3</b>	<b>34.949</b>	<b>7,8</b>	<b>20.979</b>	<b>7,5</b>

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

**Diru-sarrerarik ez daukaten pertsonen premia aztertuz gero, etxebizitza beharraren zifra guztira 91.693 etxebizitzakoa da.**

Diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsonak eskatutako 64.290 etxebizitzak honela banatzen dira: 13.338 etxebizitza emantzipazio prozesuari aurre egiteko nahikoa diru-sarrera dituztela esan duten pertsonen dagozkie, eta 50.951 etxebizitza, berriz, diru-sarrerak izan arren diru-sarrera txikiegiak edo ezegonkorak dituzten pertsonen dagozkie.

Herritarren talde horretaz gain, 31.339 pertsonak ez daukate diru-sarrera propiorik, baina etxebizitza izateko sarbide premia dutela adierazi dute; horrek, guztira, 27.404 etxebizitza kopurua ekarriko luke. Guztira 91.693 etxebizitzako eskaera globala eragingo luke.

## 7. taula. Lehenengo etxebizitzara sarbide premiaren kuantifikazioa eskuragarri dituzten diru-sarreraren edo errenta propioen arabera. EAE, 2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak, etxebizitzaren guztizkoaren gainean)

	Diru-sarrera edo errenta propioekin			Diru-sarrerarik ez	Guztira, beharrianarekin
	Nahikoa diru-sarrera	Nahikoa diru-sarrerarik ez edo diru-sarrera ezegonkorak	Guztira diru-sarrerekin		
<b>Beharrezko etxebizitzak</b>					
<b>Kp.</b>	13.338	50.951	<b>64.290</b>	27.404	<b>91.693</b>
<b>%</b>	14,5	55,6	<b>70,1</b>	29,9	<b>100,0</b>
<b>Beharriana daukaten pertsonak</b>					
<b>Kp.</b>	15.645	57.191	<b>72.836</b>	31.339	<b>104.175</b>
<b>%</b>	15,0	54,9	<b>69,9</b>	30,1	<b>100,0</b>

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015



*Epe laburreko beharrian eraginkorrak beherakada nabarmena izan du; epe luzeko joerak, oster, nabarmen egin du hobera 2013. urteko datuekin alderatuta; horrek argi uzten du etxebizitzara sarbidea izatea atzeratzea erabaki dela, baina eskaera nolabait berreskuratu egin dela.*

Antzeman denez, lehenengo etxebizitzarako sarbideari dagokionez premia berreskuratzea ez da zabaldu urtebeteko eskaerara. Hartara, lehen etxebizitza eskuratuko luketen diru-sarrerara edo errenta propioak dituzten pertsonen integratutako 64.290 etxebizitza berri potentzialetatik, soilik % 2,7k aurreikusten du datorren urtean etxebizitza eskuratzeari aurre egin ahal izatea; 2011ko % 6,3 edo 2013ko % 9,9 baino askoz gutxiago dago maila. Termino absolutuetan, eskaerak, hala, 5.843 etxebizitzatik 2013an, 1.745 etxebizitzara jaitsi zen 2015ean (% 70,1eko beherakada erlatiboarekin). Zifra hori nabarmen urruntzen da 2009an eta 2010ean eskatzen ziren 20.000 etxebizitzetatik, 12 hilabeteko epean etxebizitzarako sarbide ikuspegia zeukaten pertsonen proportzioa bi urteetan % 21 ingurukoa zenean.

Hurrengo bi edo lau urteetan lehenengo etxebizitza izateko sarbideari dagokionez, bestalde, 2015. urtean prozesu horri aurre egiteko gaitasuna izan eta beharrian daukaten pertsonen proportzioa nabarmen areagotu zen aurreko urteekin alderatuta. Horrek adierazi du etxebizitzaren sarbide erabakiak atzeratu egin direla, baina baita eskaera nolabait berreskuratu egin dela ere.

Bi urteko epean etxebizitza sarbidea izateko ikuspegiari dagokionez, lehenengo etxebizitzaren kopuruak behera egin du etengabe 2013. urtera arte. Hala, 2009an 42.215 2010ean 35.843, 2011n 25.535 eta 21.111 de 2013. urtean. 2015ean dinamika hori hautsi egin zen eta bi urteko eskaera 29.356 etxebizitzetara handitu zen. 8.245 etxebizitza gehiago aurreikusi ziren, eta horrek 2013 eta 2015 artean termino erlatiboetan % 39,1eko gorakada ekarri zuen. Hala ere, 2010ean antzemandako bi urteko eskaeraren azpitik dago (35.843 etxebizitza), eta 2011 eta 2013ko mailak aise gainditzen dira, baita 2007 eta 2008koak ere.

Lau urtera etxebizitza sarbideari dagokionez, eskaerak beherakada nabarmena izan arren 2011n 45.288 etxebizitzara arte eta 2013an 33.954 etxebizitzara arte, 2015ean joera hautsi egin zen. Eskaerak gora egin zuen eskatutako 42.233 etxebizitzetara arte; zifra horrek 2013. urteko datuekin alderatuta % 24,4ko gorakada adierazten du, eta 2011n eta 2007an zeuden mailetara hurbiltzen da.

Epe ertain eta luzeko epean, beraz, 2013ak EAEn lehen etxebizitza eskuratzeko eskaeraren krisiaren fase larriena islatzen du. Lau urteko epeari dagokionez, zifrak soilik 2011ko mailetara gerturatzeko dira, 2011. urteko mailak gainditzen dituzte eta 2013an, berriz, bi urteko eskaera ikuspegian. Arlo honetan, egoera ez da asko urruntzen 2007-2008 inguruan atzemandako datuetatik. Hala ere, urtebeteko eskaera oso txikia da, hain zuzen ere baxuena EBEI egiten denetik.



### 8. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen lehenengo etxebizitzarako sarbide eskaera eta beharrizanen kuantifikazioa EAE. 2007-2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak, etxebizitzaren guztizkoaren gainean)

	2007		2008		2009		2010		2011		2013		2015	
	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.
<b>Beharrizana (*)</b>	<b>10,4</b>	<b>82.891</b>	<b>9,0</b>	<b>74.461</b>	<b>13,2</b>	<b>110.677</b>	<b>11,7</b>	<b>97.800</b>	<b>9,0</b>	<b>76.360</b>	<b>6,8</b>	<b>59.318</b>	<b>7,4</b>	<b>64.290</b>
Eskaera, 4 urte (**)	54,4	45.073	68,4	50.954	51,6	57.091	64,7	63.254	59,3	45.288	57,2	33.954	65,7	42.233
Eskaera, 2 urte (**)	26,2	21.708	32,7	24.378	38,1	42.215	36,6	35.843	33,4	25.535	35,6	21.111	45,7	29.356
Eskaera, urtebete (**)	18,5	15.298	20,9	15.547	20,5	22.648	21,2	20.746	6,3	4.786	9,9	5.843	2,7	1.745

(\*) etxe guztien %;

(\*\*) beharra duten etxe guztien %.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

### 9. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen lehenengo etxebizitzarako sarbide-eskaeraren eta premien aldaketa, EAE. 2007-2015 eta 2013-2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak, etxebizitzaren guztizkoaren gainean)

	2007						Aldaketa, 2007-2015				Aldaketa, 2013-2015			
	2007		2013		2015		Datu absolutuak		%		Datu absolutuak		%	
	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.
<b>Beharrizana (*)</b>	<b>10,4</b>	<b>82.891</b>	<b>6,8</b>	<b>59.318</b>	<b>7,4</b>	<b>64.290</b>	<b>-2,9</b>	<b>-18.602</b>	<b>-28,2</b>	<b>-22,4</b>	<b>0,6</b>	<b>4.972</b>	<b>9,5</b>	<b>8,4</b>
Eskaera, 4 urte (**)	54,4	45.073	57,2	33.954	65,7	42.233	11,3	-2.840	20,8	-6,3	8,4	8.278	14,8	24,4
Eskaera, 2 urte (**)	26,2	21.708	35,6	21.111	45,7	29.356	19,5	7.648	74,4	35,2	10,1	8.245	28,3	39,1
Eskaera, urtebete (**)	18,5	15.298	9,9	5.843	2,7	1.745	-15,7	-13.553	-85,3	-88,6	-7,1	-4.098	-72,4	-70,1

(\*) etxe guztien %;

(\*\*) beharra duten etxe guztien %.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

**Sarbide premia daukaten pertsona guztiak aintzat hartuz gero, epe labur eta luzeko eskaeraren arteko lotura zuzena lor daiteke, eta diru-sarrerari edo errenta propioei dagokion egoera.**

Emantzipazioari aurre egiteko nahikoa diru-sarrera dauzkatela uste duten pertsonen % 13,1ek baino ez du posible ikusten epe laburrean etxebizitza bat lortzea. Diru-sarrera ezegonkorrak, diru-sarrera nahikorik ez edo diru-sarrerarik bat ere ez dutenen taldean, eskaera ikuspuntu hori ezinezkoa da.

Bi urtera etxebizitza eskaerari dagokionez, EAEko batez bestekoa eskatutako 91.693 etxebizitzaren % 37,4an dago. Zifra hori apur bat altuagoa da diru-sarrera nahikoa dituzten pertsonen taldean (% 61,5) eta apur bat altuagoa nahikoa diru-sarrerarik ez daukaten edota diru-sarrera ezegonkorrak daukaten pertsonen kasuan (% 45,7). Diru-sarrerarik ez duten pertsonen artean egoera prekarioagoa da, eta eskaera mota hori soilik % 18k aurreikusi du.

Egoera antzekoa da lau urteko eskaera aztertuz gero. Kasu horretan, Euskal AEko batez bestekoa behar diren etxebizitzaren % 60,5ean dago. Nahikoa diru-sarrera dituzten pertsonen artean, etxebizitza eskaera % 78,6ko mailan dago, eta diru-sarrera gutxiegi edota ezegonkorrak dituztela ulertzen duten pertsonen kasuan, % 62,3ko mailan. Diru-sarrerarik



ez duten pertsonen taldearen kasuan, lau urterako eskaera ikuspegiak ia erdira egin du behera beharrezko etxebizitzetara dagokienez (% 48,2).

## 10. taula. Lehenengo etxebizitzara sarbidearen eskaera eta premien kuantifikazioa, diru-sarreraren edo errenta propioen eskuragarritasunaren arabera, EAE - 2015.

(Balio absolutuak eta ehunekoak, etxebizitzaren guztizkoaren gainean)

	Diru-sarrera edo errenta propioekin						Diru-sarrerarik ez		Guztira, beharrianarekin	
	Nahikoa diru-sarrera		Diru sarrera gutxiegi edo ezegonkorak		Guztira diru-sarrerekin					
	%	Et. kop.	%	Et. kop.	%	Et. kop.	%	Et. kop.	%	Et. kop.
<b>Beharrian (*)</b>	<b>1,5</b>	<b>13.338</b>	<b>5,9</b>	<b>50.951</b>	<b>7,4</b>	<b>64.290</b>	<b>11,7</b>	<b>27.404</b>	<b>9</b>	<b>91.693</b>
Eskaera, 4 urte (**)	78,6	10.485	62,3	31.747	65,7	42.233	48,2	13.202	60,5	55.435
Eskaera, 2 urte (**)	61,5	8.206	41,5	21.150	45,7	29.356	18,0	4.928	37,4	34.284
Eskaera, urtebete (**)	13,1	1.745	0,0	0	2,7	1.745	0,0	0	1,9	1.745

(\*) etxe guztien %;

(\*\*) beharra duten etxe guztien %.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

### 18 eta 44 urte arteko lau pertsonatik hiruk familietatik independizatzeko nahia argudiatu du lehenengo etxebizitzarako sarbide premia azaltzeko

Lehen etxebizitza eskatzen duten lau pertsonako ia hiruk familiarengandik emantzipatzea arrazoi nagusi gisa argudiatzen du: % 73,8, independizatzeko bikotearekin bitzitearekin lotzen duten % 24,0arekiko. Gainerako % 2,2a honela banatzen da: lan-arrazoiak (% 1,5) edo bestelakoak (% 0,7). Jokabide hori 2013an antzemandako joeraren parekoa da, orduan helburu nagusizat emantzipatzea zeukan taldeak sarbide premia zutenen % 74,7 hartzen baitzuen (bikotean bitziteari lotutakoiei zegokienez, % 22,2).

## 11. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, lehenengo etxebizitzarako sarbide premia duten pertsonen arrazoi nagusia, EAE. 2007-2015

(Pertsonen kopurua eta ehunekoak, beharra duten pertsonen guztizkoaren gainean)

	2007		2008		2009		2010		2011		2013		2015	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Eskuratzeko prozedura	92.365	100	91.353	100	125.514	100	108.131	100	88.128	100	65.346	100	72.837	100
Bikotean bizi / ezkondu	21.115	22,9	25.031	27,4	31.630	25,2	25.303	23,4	29.369	33,3	14.519	22,2	17.498	24,0
Independizatzeko	70.253	76,1	63.216	69,2	90.119	71,8	79.476	73,5	57.264	65	48.816	74,7	53.754	73,8
Besterik	998	1,1	3.106	3,4	3.765	3	3.352	3,1	1.494	1,7	2.010	3,1	1.585	2,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015



## 12. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, lehenengo etxebizitzarako sarbide-premia duten pertsonen arrazoi nagusiaren aldaketa, EAE. 2007-2015 eta 2013-2015


(Pertsonen kopurua eta ehunekoa, beharra duten pertsonen guztizkoaren gainean)

	2007		2013		2015		Aldaketa, 2007-2015		Aldaketa, 2013-2015	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Abs.	%	Abs.	%
Eskuratzeko prozedura	92.365	100	65.346	100	72.837	100	-19.528	-21,1	7.491	11,5
Bikotean bizi / ezkondu	21.115	22,9	14.519	22,2	17.498	24,0	-3.617	-17,1	2.979	20,5
Independizatzea	70.253	76,1	48.816	74,7	53.754	73,8	-16.499	-23,5	4.938	10,1
Besterik	998	1,1	2.010	3,1	1.585	2,2	587	58,8	-425	-21,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

Emantzipazioa lortzeko arrazoi nagusia ez da nabarmen aldatu diru-sarrerak edo errenta propioak izateari lotutako egoeraren arabera. Nahikoa diru-sarrera dituztenen artean ere pareko jokabidea antzeman da (independizatu nahi dutenak % 77,1 dira, eta bikotean bizi nahi dutenak, berriz, % 22,1), baita diru-sarrerarik ez daukatenen artean ere (% 76,4 eta % 22,0). Nahikoa diru-sarrera edota diru-sarrera ezegonkorak dituzten pertsonen artean, bikotean bizitzeko gogoia apur bat handiagoa da (% 24,6; independizatu nahi dutenen datua % 72,9).

## 5. grafikoa. Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko pertsonen lehenengo etxebizitzarako sarbide premiarako arrazoi nagusia. EAE 2015



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015



### 13. taula. Lehenengo etxebizitzarako sarbide premiaren arrazoi nagusia, diru-sarreraren edo errenta propioen eskuragarritasunaren arabera, EAE - 2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak beharra duten pertsonen guztizkoaren gainean)

	Diru-sarrera edo errenta propioekin									
	Nahikoa diru-sarrera		Diru sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak		Guztira diru-sarrerekin		Diru-sarrerarik ez		Guztira, beharrianarekin	
	Kp.	%	Kp.	%	Kp.	%	Kp.	%	Kp.	%
Guztira	15.645	100,0	57.192	100,0	72.837	100,0	31.340	100,0	104.177	100,0
Bikotean bizi / ezkondu	3.455	22,1	14.043	24,6	17.498	24,0	6.881	22,0	24.379	23,4
Independizatzea	12.063	77,1	41.691	72,9	53.754	73,8	23.944	76,4	77.698	74,6
Besterik	127	0,8	1.458	2,5	1.585	2,2	515	1,6	2.100	2,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

**Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten lehenengo etxebizitzaren eskatzaileen % 52,2k alokairua aukeratzen du; zifrak aise gainditzen du 2013an jasotako kopurua (% 38,7)**

Etxebizitza jabetza aukeratzen dutenei dagokienez, 2015ean diru-sarreraren bat edo errenta propioak zituzten 18 eta 44 urte arteko populazioaren % 52,2k alokairu araubidean lehenengo etxebizitza eskatzen zuen; proportzioak jabetzaren hautua egiten duten % 26,5 maila gainditzen du. Gainerako % 22,4ak etxebizitza aukeratzeko edozein araubide aukeratu luke. 2013an ikusitakoa ez bezala, kasu honetan jabetzaren aldeko aukeraketa nabarmen murriztu da, eta % 26,5etik % 36,7ra jaitsi da. Alokairuaren aldeko hautua, ostera, 2013an % 38,7 izatetik une honetako % 52,2 izatera igaro zen.

Epe luzeko bilakaera ikuspegi batean, eskatutako etxebizitza araubideari dagokionez antzemandako aldaketa nagusia jabetzako etxebizitza eskabideen beherakada da; izan ere, 2007an eskatzaileen % 67,8ren hautua izatetik 2015ean % 26,5era igaro zen. Bestalde, alokairua nahiago duten pertsonen proportzioak 2007an % 8,3 izatetik 2015ean % 52,2 izateraino egin du gora. Lehen aldiz jabetza aukeratzeko prest agertu diren pertsonen proportzioa txikia da (aztertutako pertsonen % 48,9 jabetzaren edo beste edozein araubideren alde egingo lukete).

### 14. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izan eta lehenengo etxebizitzarako sarbide premia duten pertsonen eskatutako etxebizitzaren jabetza araubide, EAE 2007-2015

(Beharra duten etxeen gaineko ehunekoak)

	2007		2008		2009		2010		2011		2013		2015	
	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%
<b>Eskuratzeko prozedura</b>	<b>82.891</b>	<b>100</b>	<b>74.461</b>	<b>100</b>	<b>110.676</b>	<b>100</b>	<b>97.800</b>	<b>100</b>	<b>76.360</b>	<b>100</b>	<b>59.318</b>	<b>100</b>	<b>64.290</b>	<b>100</b>
Jabetza	56.200	67,8	44.373	59,6	65.835	59,5	50.486	51,6	39.717	52,0	21.796	36,7	17.021	26,5
Alokairua	6.880	8,3	7.331	9,8	18.136	16,4	22.703	23,2	13.566	17,8	22.940	38,7	33.564	52,2
Berdin dio	19.811	23,9	22.757	30,6	26.705	24,1	24.611	25,2	23.076	30,2	14.582	24,6	20.549	22,4

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015



### 15. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izan eta lehenengo etxebizitzarako sarbide premia duten pertsonen eskatutako etxebizitzaren jabetza araubidearen aldaketa, EAE 2007-2015 eta 2013-2015

(Beharra duten etxeen gaineko ehunekoak)

	2007		2013		2015		Aldaketa, 2007-2015		Aldaketa, 2013-2015	
	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Etx. kop.	%	Abs.	%	Abs.	%
<b>Eskuratzeko prozedura</b>	<b>82.891</b>	<b>100</b>	<b>59.318</b>	<b>100</b>	<b>64.290</b>	<b>100</b>	<b>-18.601</b>	<b>-22,4</b>	<b>4.972</b>	<b>8,4</b>
Jabetza	56.200	67,8	21.796	36,7	17.021	26,5	-39.179	-69,7	-4.775	-21,9
Alokairua	6.880	8,3	22.940	38,7	33.564	52,2	26.684	387,9	10.624	46,3
Berdin dio	19.811	23,9	14.582	24,6	20.549	22,4	-6.107	-30,8	-878	-6,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

**Lehenengo etxebizitza eskatzaileen % 55,0k alokairuaren aldeko hautua egin du; zifra horrek aise gaititzen du jabetzaren alde egiten dutenen kopurua (% 22,6). Hala ere, gaitasun ekonomiko handiagoa daukatenen kasuan, etxebizitza jabetza lehenesteak gora egin du**

Alokairu araubidea aukeratzen duten pertsonak areagotu arren, ikusi da baliabide ekonomikoak izateak jabetza araubideari eustea dakarrela. Izan ere, emantzipatzeari ekiteko nahikoa baliabide dituzten pertsonen taldean % 42,5ek jabetza nahiago du; zifra % 22,3ra jaisten da baliabide ekonomiko prekarioagoak dituztenen kasuan, eta % 13,6ra inolako baliabiderik ez dutenen artean.

Ildo beretik, emantzipatzeko nahikoa diru-sarrera dituzten 18 eta 44 urte arteko pertsonen taldean alokatzea aukeratzen dutenek, gehienek, erosteko aukera ematen duen alokairua hautatzen dute (% 27,3; erosteko aukerarik ematen ez duen alokairua % 19,3k aukeratzen dute). Erosteko aukera ematen duen alokairua % 22,3ra jaitzi da diru-sarrera gutxiago edota diru-sarrera ezegonkorak dituzten pertsonen kasuan; % 31,4k erosteko aukerarik ematen ez duen alokairua hautatzen du. Diru-sarrerarik ez daukaten pertsonen kasuan, erosteko aukerarik ematen ez duen alokairua % 39,9k hautatzen du, eta erosteko aukera, berriz, % 21,5ek.

### 16. taula. Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen eskatutako etxebizitzaren edukitze erregimena, EAE 2015.

(Balio absolutuak eta ehunekoak, etxebizitzaren guztizkoaren gainean)

	Diru-sarrera edo errenta propioekin						Diru-sarrerarik ez		Guztira, beharrianarekin	
	Nahikoa diru-sarrera		Diru sarrera gutxiegi edo ezegonkorak		Guztira diru-sarrerekin					
	Kp.	%	Kp.	%	Kp.	%	Kp.	%	Kp.	%
<b>Guztira</b>	<b>13.338</b>	<b>100,0</b>	<b>50.951</b>	<b>100,0</b>	<b>64.290</b>	<b>100,0</b>	<b>27.405</b>	<b>100,0</b>	<b>91.694</b>	<b>100,0</b>
Jabetza	5.668	42,5	11.354	22,3	17.021	26,5	3.733	13,6	20.754	22,6
<b>Alokairua</b>	<b>6.224</b>	<b>46,7</b>	<b>27.341</b>	<b>53,7</b>	<b>33.564</b>	<b>52,2</b>	<b>16.827</b>	<b>61,4</b>	<b>50.391</b>	<b>55,0</b>
- Erosteko aukerarik gabe	2.580	19,3	15.989	31,4	18.569	28,9	10.924	39,9	29.493	32,2
- Alokairua, erosteko aukerarekin	3.644	27,3	11.352	22,3	14.996	23,3	5.902	21,5	20.898	22,8
Berdin dio	1.447	10,8	12.257	24,1	13.704	21,3	6.845	25,0	20.549	22,4

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015





***2013 eta 2015 artean diru-sarrerak edo errenta propioak izan eta emantzipatzeko premia duten pertsonen batez besteko adina bi urte igo zen***

Diru-sarrera edo errenta propioak dituzten eskatzaileen profila aztertuz gero, talde garrantzitsuena 25 eta 34 urte artean dago, % 68,2 hartzen baitu. 35 eta 44 urte arteko pertsonak, berriz, % 19,8 hartzen dute, eta 18 eta 24 urte artekoak, berriz, % 11,9.

Bilakaera ikuspegian, egiaztatu da 18 eta 24 urte arteko taldeak azken urteetan garrantzia galdu duela pixkanaka; 2007an sarbide premia zutenen % 30,2 ziren, eta 2015ean, berriz, % 11,9. 35 eta 44 urte arteko pertsonen presentziak, berriz, gora egin du. 2007an % 17,9ko pisu erlatiboa izatetik 2009an % 6,9 izatera igaro ondoren, 2010-2013 aldian maila % 13-14koa izan zen, eta 2015ean, berriz, % 19,8koa. 25 eta 34 urte arteko taldeak premiaren % 55 baino gutxiago hartzen zuen 2007an eta 2008an, eta % 70etik gorako mailetan izan zen 2011n eta 2013an; ondoren beherakada arina izan zuen 2015ean, % 68,2ra.

2015ean emakumeen eta gizonezkoen arteko parte-hartze erlatiboa bereiztea nabarmendu egin zen. Hala, emakumearen pisua % 48 ingurukoa izan zen 2011n (% 48,1) eta 2013an (% 48,6), baina 2015ean % 42,5era jaitsi zen. Bestalde, gizonezkoen parte hartzea areagotu egin da; 2013an % 51,4 izan zen, eta 2015ean, berriz, % 57,5. Eraitza horretako faktore erabakigarrietako bat emantzipatutako gizonezkoen herritarren pisu txikiagoari lotuta dago, emakumeen pisuaren aldean. 18 eta 44 urte arteko pertsona guztietatik, emakumeen % 66,2 emantzipatuta daude, eta gizonei dagokienez, berriz, datua % 56,9koa da.

Ikasketa mailari dagokionez, eskatzaileen % 44,9k unibertsitate mailako titulazioa dauka, eta % 35,2k, berriz, ikasketa profesionalak. Lehen mailako ikasketak (% 11,4) eta bigarren mailako ikasketak (% 8,5) egin dituztenen presentzia, oster, txikiagoa da.

Bilakaerari dagokionez, lehenengo etxebizitza eskatzen dutenen artean unibertsitate ikasketak dituztenen pisu erlatiboa egonkortzeko joera antzeman da; 2010. urtera arte % 42 inguruko zifrak ziren, baina % 45etik gorakoak izan ziren 2011n (% 45,6) eta 2013an (% 45,5); 2015. urteko mailatik gertu dago (% 44,9). 2013 eta 2015 artean antzemandako desberdintasun nagusia bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen (2013an % 10,6 eta 2015ean % 8,5) ikasketa profesionalak zituztenen pertsonenganako aldatetari dagokio; 2013an % 32,5ekoa zen, eta 2015ean, berriz, % 35,2.

Lehenengo etxebizitza duten pertsonen % 44,7k besteen konturako lanpostua du, aldi baterako kontratuarekin, 2013an erregistratutako zifra baino zortzi puntu altuagoa da (% 36,6). 2007tik erregistratutako zifrarik altuena da, urte horretan alde aurreko % 36,1eko maximoa izan zen.

Kontratu finkoaren kasuan aurkakoa gertatzen da; izan ere, etxebizitza behar duten pertsonen artean duen presentzia % 44,1era jaitsi zen 2013an, eta % 37,7ra 2015ean. Horrela, 2010. urtera arte erregistratzen ziren zifrekin erkatuta (% 50 baino altuagoak, oro har) beheranzko joera argia dago. Soldatarik gabeko langileek (norberaren konturako langilea eta kooperatibista) % 13,3 hartzen zuten; gainerako kategoriek % 10 baino gutxiago ziren.



## 17. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izan eta lehenengo etxebizitzara sarbidea behar duten pertsonen ezaugarri sozio-demografikoak, EAE. 2007-2015

(Beharra duten etxeen gaineko ehunekoak)

	2007		2008		2009		2010		2011		2013		2015	
	Kop.	%.	Kop.	%.	Kop.	%.	Kop.	%.	Kop.	%.	Kop.	%.	Kop.	%.
<b>Guztira</b>	<b>92.365</b>	<b>100</b>	<b>91.353</b>	<b>100</b>	<b>125.514</b>	<b>100</b>	<b>108.131</b>	<b>100</b>	<b>88.128</b>	<b>100</b>	<b>65.346</b>	<b>100</b>	<b>72.836</b>	<b>100</b>
<b>Beharra duenaren adina</b>														
18 eta 24 urte bitartean	27.894	30,2	29.130	31,9	27.273	21,7	21.379	19,8	12.964	14,7	8.431	12,9	8.692	11,9
25 eta 34 urte bitartekoa	47.938	51,9	50.026	54,8	89.633	71,4	72.038	66,6	63.342	71,9	47.861	73,2	49.687	68,2
35 eta 44 urte bitartean	16.533	17,9	12.197	13,4	8.608	6,9	14.714	13,6	11.821	13,4	9.053	13,9	14.456	19,8
<b>Batez besteko adina (urteak)</b>	<b>29,1</b>		<b>28,7</b>		<b>27,8</b>		<b>28,5</b>		<b>28,8</b>		<b>28,0</b>		<b>30,3</b>	
<b>Sexua</b>														
Emakumea	41.287	44,7	39.724	43,5	55.227	44,0	48.029	44,4	42.420	48,1	31.777	48,6	30.957	42,5
Gizona	51.078	55,3	51.630	56,5	70.287	56,0	60.102	55,6	45.708	51,9	33.569	51,4	41.879	57,5
<b>Ikasketa-maila</b>														
Ikasketarik gabe/Lehenengo maila	15.240	16,5	13.177	14,4	20.961	16,7	15.269	14,1	15.837	18,0	7.451	11,4	8.292	11,4
Lanbide ikasketak	28.633	31	33.982	37,2	39.327	31,3	35.705	33,0	22.949	26,0	21.248	32,5	25.644	35,2
Bigarren mailako ikasketak	9.698	10,5	10.376	11,4	14.292	11,4	11.885	11,0	9.188	10,4	6.917	10,6	6.203	8,5
Unibertsitateko ikasketak	38.793	42	33.543	36,7	50.934	40,6	45.271	41,9	40.154	45,6	29.730	45,5	32.698	44,9
Ed/Ee	-	-	275	0,3	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Lan egoera</b>														
Soldatapekoak ez direnak <sup>2</sup>	5.810	6,3	5.926	6,5	15.296	12,2	7.953	7,4	6.983	7,9	7.161	11,0	9.695	13,3
Landuna, kontratu finkoa	47.162	51,1	47.145	51,6	59.581	47,5	53.744	49,7	60.880	69,1	28.821	44,1	27.472	37,7
Landuna, aldi baterako kontratua	33.307	36,1	29.614	32,4	35.749	28,5	36.552	33,8	12.848	14,6	23.885	36,6	32.556	44,7
Langabea	4.332	4,7	6.390	7,0	8.083	6,4	6.415	5,9	5.089	5,8	3.608	5,5	2.162	3,0
Beste egoeraren bat	1.755	1,9	1.750	1,9	6.248	5,0	3.467	3,2	2.329	2,6	1.341	2,1	952	1,3
Ed/Ee	-	-	528	0,6	557	0,4	-	-	-	-	530	0,8	-	-

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta. 2015

<sup>2</sup> Besteen konturako langileak eta kooperatibako bazkideak barne.



## 18. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izan eta lehenengo etxebizitzara sarbidea behar duten pertsonen ezaugarri sozio-demografikoen aldaketak, EAE. 2007-2015 eta 2013-2015

(Beharra duten etxeen gaineko ehunekoak)

	2007		2013		2015		Aldaketa, 2007-2015		Aldaketa, 2013-2015	
	Kop.	%.	Kop.	%.	Kop.	%.	Kop.	%.	Kop.	%.
<b>Guztira</b>	<b>92.365</b>	<b>100</b>	<b>65.346</b>	<b>100</b>	<b>72.836</b>	<b>100</b>	<b>-19.529</b>	<b>-21,1</b>	<b>7.490</b>	<b>11,5</b>
<b>Beharra duenaren adina</b>										
18 eta 24 urte bitartean	27.894	30,2	8.431	12,9	8.692	11,9	-19.202	-68,8	261	3,1
25 eta 34 urte bitartekoa	47.938	51,9	47.861	73,2	49.687	68,2	1.749	3,6	1.826	3,8
35 eta 44 urte bitartean	16.533	17,9	9.053	13,9	14.456	19,8	-2.077	-12,6	5.403	59,7
<b>Batez besteko adina (urteak)</b>	<b>29,1</b>		<b>28,0</b>		<b>30,3</b>		<b>1,2</b>	<b>4,1</b>	<b>2,3</b>	<b>8,2</b>
<b>Sexua</b>										
Emakumea	41.287	44,7	31.777	48,6	30.957	42,5	-10.330	-25,0	-820	-2,6
Gizona	51.078	55,3	33.569	51,4	41.879	57,5	-9.199	-18,0	8.310	24,8
<b>Ikasketa-maila</b>										
Ikasketarik gabe/Lehenengo maila	15.240	16,5	7.451	11,4	8.292	11,4	-6.948	-45,6	841	11,3
Lanbide ikasketak	28.633	31	21.248	32,5	25.644	35,2	-2.989	-10,4	4.396	20,7
